

## 0.- SARRERA

Bidankozarteko laugarren zenbakia da hau, aldizkaria aurkeztean esan genuen bezala, Endone Petriko xeiei dagokiena. Hasierako asmoa bazen (eta bada) urtean zehar lau ale argitaratzea, Bidankozen jende gehien dagoenean argitaratzen saiatuko gara. Hau da, San Agustineko xeietan, Gabonetan eta Aste Santuan. Laugarren data esanguratsua behar genuen eta Endone Petri izan daitekeela iruditzen zaigu.

Garai batean, uda lan handiko aroa zen bai baratzetan baita zelaietan ere. Halaber, familiak elkartzeko garaia zen bai artzainak, bai almadieroak baita espartingileak ere Bidankozera itzultzen baitziren horrek ematen zuen poztasunarekin.

Endone Petri uda hasieran izatean eta herri osoa elkartu berria izatean, pentsa daiteke xei hauek gogo handiz hartuko zituztela. Batzuek negu osoa ardiekin Bardeetan igarotzen zuten, beste batzuek

basogintzan eta almadiak garraiatzen auskalo noraino eta besteek Maulen espartinak egiten.

San Juan baselizan, duela ehun urte arte egiten zen erromeria ere gogo handiz hartzen omen zuten. Gai hau, sakontasun handiagoz, beste momentu batean ikusiko dugu.

Goazen ba udako zenbaki honekin, Bidankozeko karririk eta zelaiak (gaur egun baratzak besterik ez) berpizten direnean.

## 1.- HISTORIA APURRAK - PATROIKO XEIETAKO DATEN ALDAKETA (1970)

Bidankozek 1970eko hamarkadan populazio galera izugarria izan zuen. Egunkari baten izenburuak zioenez "*Bidankozen emigrazioa ez da arazoa, drama baizik*". Artikuluan azaltzen zen bezala, bi urtetan 12 auzokidek (hau da, hamabi etxe) herritik alde egin zuten eta 40 bakarrik gelditzen ziren bertan. Etorri ziren urteak ez ziren hobekak izan.

1970ko martxoaren 7an, aipatutako emigrazioa dela eta, Enrique Hualde (Txestas / Juanko) alkatea zelarrik, Hamabostaldiko Batzordeak Endone Petri patrioiaren omenez aspalditik ospatzen ziren xeietako daten aldaketa onartu zuen.

Xeiek San Agustinerara pasatu ziren, Bidankozeko elizaren kongsagrazioa ospatzen baitzen egun horretan eta hori dela eta jaia zen herrian. Laukian irakur

daitezke daten aldaketa honen arrazoiak eta baldintzak, orduetik aurrera xeiek ez

baitziren hasi beharko San Agustin egunean bertan (abuztuak 28).

«Seguidamente se somete a la consideración de la Junta de Quincena la posibilidad de suprimir las fiestas que vienen celebrándose el día de San Pedro (29 de junio) y siguientes trasladándolas a la festividad de San Agustín (28 de agosto). Igualmente se expone por algunos miembros de la Corporación la conveniencia de que se busque la forma de que todos los años haya un domingo dentro de las fiestas, con el fin de que los naturales de la villa, residentes en otras localidades, puedan participar en las fiestas, con mayor facilidad. Se acuerda trasladar las fiestas al día de San Agustín en las siguientes condiciones: 1.º Como norma general las fiestas darán principio el día 28 de agosto y tendrán una duración de cuatro días. 2.º Los años en que el día de San Agustín toque con lunes o martes, las fiestas darán principio el domingo anterior a San Agustín, que necesariamente será el 26 o 27 de agosto, respectivamente. 3.º Excepcionalmente los años en que San Agustín toque con miércoles, los días de duración de las fiestas serán cinco, dando comienzo las mismas el día de San Agustín».

## 2.- BIDANKOZEKO HIZTEGIA

Herri guztiek bezala, Bidankozek ere hizkuntza erabiltzean berezitasunak ditu. Testuinguru historikoa eta sozialaren arabera hitzak sortzen dira.

Bertako lexikoa ezagutzen ahal dugu José M<sup>a</sup> Iribarrenek idatzitako "*Vocabulario navarro*" liburuan. Bidankoztar batzuk izan zituen laguntzaile: Ciriaco Asín Gayarre (*Pelaire*) eta Vicente Villabriga Lozano. Azken honek, dirudienez, Zangoza eta Bidankozeko

hitzak eman zituen. Nik ez dakit, hala ere, zer harreman mota izan zuen gure herriarekin.


Hauek emandako hitzak agertzen dira batzuetan Bidankozekoak eta beste batzuetan Erronkari bailarakoak izango balira bezala.

Hau ez da Bidankozeko hiztegia aipatzen den momentu bakarra. 1950an Severo Pérez Arriolak (*Diego*) eta Isidro Urzainqui Pérezek (*Santxena*) Nafarroako ipar-

ekialdeko hiztegiari buruzko ikerketa batean lagundu zuten.

Bidankozeko eskolan azkenengo urtetan egon zen irakasle batek, beharbada Zangozako Isabel Taboada Sanzek, ikasleek erabiltzen zuten hizkera bitxia ikusita, herrian bakarrik erabiltzen ziren hitzekin hiztegi txiki bat eskatu zien.

Bidankozarteko hurrengo aletik aurrera, atal honetan, anpailauri, alguaza, gurrilon, irasko edo zoketa bezalako hitzak jasoko ditugu. Garai batean maiz erabiltzen ziren hitzak dira eta gaur egin, berriz, gehienak zokoratuta ditugu. Abuztuatik aurrera gogoratzen saiatuko gara.



## 3.- HEMEROTEKA - UDALETXE-ESKOLA BERRIAREN INAUGURAZIOA (1912)

Bidankozarteko lehenengo zenbakian, atal honetan bertan, udaletxe-eskola berriaren eraikitzearen hasieraz hitz egiten genuen, eta bertan helarazi genizuen moduan 1912ko ekainean eraikin honen

zabalpena jazo zen, orain 100 urte betetzen dituelarik.

Obren amaieraren albistean, eraikinaren kokapenaz hitz egiten zen "plaza zabalaren alboan eta pilota-jokuaren ondoan" zegoelarik, frontoiari izen bitxia emanaz.

Eskolaren estreinaldiaz gain, Mamesa Zuria maistra eta gerturatu zen jende guztiak udaletxea zoriondu zuen. Bitxia da eskolaren baldintza higienikoei albistean egiten zaien aipamena, behar bada aurreko eskolarekin

konparatuz...

Halaber, obren buru zen Miguel Berasaluce ingeniaria aipatzen du berriak, bai eta bere ordezkari zen Lorenzo Sarries erronkariarra. Azkenik, obra gauzatu zutenen kontratisten izenak agertzen dira, 3 zaraitzuar eta bidankoztar bat zirelarik, azken hau Fermín Pérez Artieda izenekoa, *Paxapan* eta *Txestas* etxetakoa.

100 urte ondoren, eraikinak zutik darrai, eta erreformaren bat gaizki etorriko ez litzaioken arren, bere funtzioa ederki bete izan du, bertan ikasi baitute bizirik dirautenen bidankoztarren gehiengo handi batek (gaztetxoena izan ezin, hauek erronkarira pasatu baitziren). Esatekoa da ere, bertan hartu izan direla herri gisako erabaki gehienak.




## 4.- TOPONIMIA (LEKUEN IZENAK) - IGARIARENA

Aurreko alean *Elizarena* toponimoaz geniharduen, eta oraingoan *Bintze* ibaia zeharkatuko dugu nahiz eta oso urruti ez joan, Igariaren izango baita gure hurrengo parada, zeinak Elizarenak bezala ezberrik gabeko etimologia daukan

*Igariarenak* (*Elizarenaren* antzera) bukaeran duen -(r)ena atzizkiak jabe goa adierazten du. Hasierako "Igari" hitzak Bidankoze ondoko Zaraitzuko herriari dio zor. Finean, izen hori izatearen zergatia, Igarirantz jo nahi izatekotan leku horretatik pasatzea nahitaezkoa delako da.

*Igariarena* batek daki zer tolesdura geologikoren ondorioz sortutako harrizko plaka handi bat da, zeinak antzina *Elizarenarekin* eta *Pitxorrongarekin* bat eginda, harrizko plantxa handi bakarra sortuko zuen. Geroago *Bintze* ugaltzak, *Elizarenako* errekek eta *Txurrustak*



higatuko zuten, urteen poderioz gaur egungo erliebea emanaz.

Igariarenak Bidankozeko industriaren parte handi bat hartu du bere magalean, esan genezake herrian egon diren industria mota guztiak jaso dituela bere itzalean: teileria, zerrategia, arategia eta gaztandegia kasu, hau da, eraldaketa-industria, zurgintza, abeltzaintza industria eta elikadura-industria.

Azkenik, Bidankoze-Igariko errepidea egin behar izan zuten presoek jasandako miserien derrigorrezko lekuko izan zen ere, zeintzuek pikotxaz eta palaz soilik baliatuz, errepide hau egin behar izan zuten. Pasa den hileko 23an beste urte batez ere merezitako omenaldia jaso zuten.

## 5.- OIKONIMIA (ETXEEN IZENAK) - PELAIRE

Bidankozekozeri buruzko ohiko dokumentazioko ibilbidean *Egullorre* dugu azkeneko auzoa, nahiz eta adituen iritziz Bidankozeko jatorrizko auzo izandakoaren aztarnak daudela, beharbada bi Bidankozekak zeuden garaian zegoen auzo bakarra.

Aipaturiko ibilbidea jarraituz, Egullorre auzoko lehenengo etxea igarotzen *Pelaire* bezala ezaguturikoa dugu. *Pelaire*, Jose María Iribarren-en “*Vocabulario Navarro*”-n agertzen den bezala, koltxoiak egiten zituztenak izendatzeko erabiltzen zen, gehienetan artilezkoak.

Eta etxe honen kasuan zehazki, eta norberak iragan berriaren datuak besterik izango ez balitu, gertatzen da Silvestre Asín Cenboráin, etxe honetara 1919an ezkonduko Uskartzeko alarguna, Uskartzeko *Pelaire* etxetik zetorren, beraz izan zitekeen jendeak etxea “berrizendatzea” etxeko gizon berria ezaguturiko izen horrekin, bere jatorrizko etxetik baitzetorkion. Eta, bere semeetako batek aditzera eman zuenez, *pelaire* ibili zen bere gazte garaian, orduan, etxearen izena hortik ez bazetorkion kasualitate itzela izanen zen.

Gauza da etxeko aurreko jabeen begira, 1919a arte Hualde abizena zeramaten. Etxeko azkeneko Hualde jabe agertzen zen pertsona Pedro Miguel Hualde Jiménez genuen, aipatutako urtean hil zena. Bera baino lehen jabe izan genituen bere aita, Miguel Ramón Hualde Salvoch, eta bere aitona, Juan Pascual Hualde Anaut. Honeraino, dena normala eta denak Hualde.



Baina gertatzen da Juan Pascual Hualde Anauten aita Tomás Hualde Pelayra zela, eta gerta zitekeen etxe horretako jatorrizko norbait Pelayra abizenduna izatea.

Bada, apur bat gehiago bila eta bila ibili ondoren ematen du baietz, etxea

oinordetu zuena Tomás Hualde Pelayra honen ama izan zen (Bidankozeka zen ere bere aita, baina beste etxe batekoa). Amak Vizenta Pelayra Hualde zuen izena, eta Uskartzeko jatorria zuen bere aitak ere, eta berarekin Pelayra abizena etorri zen Bidankozera, nahiz eta epe labur batez iraun herrian (gainera, oraingo Pelayra etxeko izena Uskartzeko bati ere dagokio, Cosme Pelayra, 1903an Maximina Fuertesekin ezkondu zena). Eta, berriz ere, Pelayra hau baino belaunaldi bat lehenago, Hualde abizena ere zeukaten *Pelaire* etxean.

Beraz, behar bada, etxe honen izena, azken finean, Almiradion edo Zaraitzun izan dezake bere jatorria, *Pelaire* izeneko etxeren batean, eta etxe hartako semeren bat Bidankozera ezkondua izango zen. Edo behar bada ez bata ez bestea, eta izena *pelaire* ibilitako aipaturiko Hualderen batengatik datorkio. Norberak bere ondorioak atera ditzala.

*Pelaire* etxekoa, hain zuzen, Ciriaco Asín Gayarre apezka genuen, lehen aipatu dugun moduan “*Vocabulario Navarro*”-n laguntzaile, kasualitatez *pelaire*ren definizioa eman digun liburua.

## 6.- BIDANKOZERI BURUZKO BITXIKERIAK - UDAL-BULGUKO ANTZINAKO ZIGILUA

Alderdi askotan, Erronkaribarraren irudian edota hura osatzen duten 7 herrien irudietan, Kordobako errege izandako Abderramanen heriotzaren kondaira presente dago, erronkariarren eskutan hil zena, Esako zubian legendak dioenez. Horren lekuko dira Erronkaribarraren armarría, gertakaria gogorarazten duten hainbat etxetako ateharriak (Bidankozen *Montxonena* eta *Ferniando* etxeak ditugu adibide) edo aiza-bulguen ziguiluak. Hain zuzen ere, gaur



egun Bidankozen dokumentu ofizialak sinatzeko erabiltzen den irudia hauxe dugu, errege mairuaren burua zubiaren gainean agertzen delarik.

Hala ere, dirudienez ez da beti horrela izan. 1876. urtean Gobernu Zibilak aiza-bulguei beraien ziguilu ofizialen kopia bana eskatu zien. Bidankozekoa, Braulio M<sup>a</sup> Urzainki Sanz (*Txestas*) zelarik presidente, ondoko lerroetan ikus daiteken ziguilurekin erantzun zion eskakizunari. Bertan, betiko zubia eta erregearen buruaz gain,

arrainak ikus daitezke zubiaren azpialdetik, balantza bat (justiziaren seinale), eta argitu gabeko elementuren bat buruaren ezker aldean. Grafikoaren kanpoaldean “*Bidankozeko Hiriko Aiza-Bulgu Konstituzionala*” hitzak irakur daitezke, *Konstituzional* hitza bitxia suertatzen delarik, hainbat konstituziori men egin dakioken arren.

Honen sorrerari dagokionez, ziguilua laguntzen duen ohar batek dioen arabera “*ez dago horren inguruko albiste historikorik*”, 35 urteko erabilera gainean duela da zehazten den bakarra (1841tik gutxi gorabehera, aldaketa sakonetako urtea Nafarrarentzat) bai eta ez dagoela inolako berririk antzina beste ziguiluren bat erabili izanaz.

## 7.- MARIANO MENDIGATXAREN GUTUNAK

Zenbaki honi dagozkion gutunekin hasi aurretik, azalpen bat aurrekoei dagokienez. Gogoratuko duzuen bezala, baziren pare bat data izena jartzeko gai ez nintzena. Lehenengo zalantza, maiatzak 31, garai hartako egutegiak begiratu ondoren argitzen da. Egum hura igandea zen eta dirudienez Mendekoste eguna ospatzen zen.

Behin hau argituta, hurrengo gutunen edukiez arituko gara. Aurreko alean, abuztuaren 7ko gutunean, Marianok, Azkuek horrela eskatuta, organo-jotzailearekin harremanetan jarri zen honek antzinako abestien partiturak ateratzeko, Uskara herritar guztiek erabiltzen zuten garaiko abestiak. Hauen adibide atal honen bukaeran ikus daiteke.

Hurrengo gutunean, abuztuaren 20koa, ez da informazio gehiegi ematen baina bere amak, Melchora Ornat (*Ornat*), azaltzen zion moduan, "*Haren gaztaroan gizonak bi taldetan elkartzen ziren, bata*

*zaharrena eta bestea gazteena; beti omen zeuden haserre, zaharrenak gazteekin; zaharrek gazteak baino gehiago ahal zuten, esaten dute xei guztietan egurtu eta jipoitzen zituztela; horrela beldurtzen zituzten, elkartzen ziren etxetik ez baitziren ateratzen; diotenez zaharrek gazteak elkartzen ziren etxera hurbiltzen ziren, nahi zutena abestera; gero, agur moduan, atxikirik doakizun abestia abesten zuten.*

*Gero, denborarekin, gazteek zaharrei irabazi omen zieten; eta esaten dute zaharrek zeuden etxearen ate ondora joan zirela", jarraian datorren abestia kantatzera, Uskaraz, eta "Goazen, goazen kebertik" izena duena. Abestiak honakoa dio: "Goazen, goazen kebertik, iriaren erditik mutil gaztekuengatik, guk nai dugun lekutik. Erkin ziei mutil zarak, erkin ziei karrikara, eia ikasen tzei gore makilen erdara ezrei ez erkinen lotsa baitzei sartruk, gore makilak izanen drela zen bizkarrean xuritruk".*

Ikusten den moduan, lehia "*zintzoa*" zuten. Hurrengo zenbakirako, Mendigatxak dio pinu, izei eta Bidankozen dauden beste zuhaitzei buruz hitz egingo duela. Ikusiko dugu, bada.



## 8.- BUKAERA

Hemen amaitzen da Bidankozarteren lehenengo urteko zikloa. Lehenengo zenbakitik atal berriak agertu dira, eduki anitzagoak izateko eta, aldi berean, gehiago ez luzatzeko batzuetan, luzatzen banaiz, badakigu asperrak eta guzti izan ahal naizela...

Bestalde, esatea azkenean interneten eskura daudela eguneraino argitaratutako aldizkariak, deskargatu ahal direla Bidankozeko web-orrian sartzen ([www.vidangoz.com](http://www.vidangoz.com)) Bidankozarte atalean edo zuzen hurrengoan jotzen: [www.vidangoz.com/gaztelera/bidankozarte](http://www.vidangoz.com/gaztelera/bidankozarte). Esatea ere berehala aldizkari hau euskaratzeko lanekin hasiko gara, dena ongi badaoza uztailan zehar.

Aldizkariari eskainitako atalez gain, Bidankozeko web-orriko edukiak ari gara berritzen, "Xurgin xastea" rako berazko atal bat prestatuz, zer den, zer historia izan duen, edizio ezberdinetako irudiekin eta abar...

Ahal den neurrian, interesgarria litzateke egun horretarako prestatu diren gainerako ekitaldiak, horrela, interesatuta dagoena jakin dezake Bidankozen egun horretan zer egin ahal den.

Nahiz eta denbora pixkat pasatua izatea, polita izango zen joan den maiatzaren 19an ospatutako azken Uskararen Eguneko argazkiak biltzea eta jartzea.

Nola edo hala, mota guztietako laguntza eskertuko da, materiala eskaini, ideiak, iradokizunak edo bakoitzak bere ustean eskaini ahal duena.

Eta honekin bukatzen da Bidankozarteko 4. emanaldia. Hurrengo zenbakia San Agustinen argitaratuko da, lehenengo bezala, eta, berarekin batera, Bidankozeri buruzko prentsa-artikulu bilduma aurkeztuko da, iaz bezala, baina hurrengo hamarkadak landuz.

Uda ongi pasatzera, bada, hasi baino ez du egin eta.

Agur bero bat eta laster arte.

LAGUNTZEN DU:

AYUNTAMIENTO  
DE LA VILLA DE  
VIDANGOZ



BIDANKOZEKO  
AIZA BULGUA